

Toure detektibea sortu du Jon Arretxek

Bilboko San Frantzisko auzoan bizi den Burkina Fasoko etorkin bat da '19 kamera' nobela beltz berriko protagonista

Aurreko lanen aldean umorea du berritasun, eta sail baten lehen alea izango da

Gorka Erstarbe Donostia

Toure dauka izena, baina ez da futbol jokalaria. Toure dauka izena, baina ez da dirutan milioi duena. Bilboko San Frantzisko auzoan bizi den Burkina Fasoko gizonezko etorkin bat da Toure. Beste bospasei lagunekin batera bizi da «patera pisu batean». Nolabait bizimodua aurrera ateratzen behar da, eta, sasi-igarle lanetan hasita, ia ikertari izaten amaituko du. Jon Arretxeren *19 kamera* nobela berriko pertsonaia nagusia da Toure. Erein argitaletxearekin plazaratu du, euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean —*19 cámaras* izenburuarekin—.

Lehen ere nobela beltza landu-takoa da Arretxe. *Xahmaran* (2009) eta *Tangerko ametsak* (2011) Ereinen Uzta Gorria bilduman argitaratu zituen, *19 kamera* bezala. Aurreko bi nobelak atzerrian kokatu zituen idazleak; Istambul bata, Tangerren bestea. Biak ere «nahiko nobela tragikoa» dira, idazlearen hitzetan: «Mundu guztia hiltzen baita. Giza tragedia itzelak gertatzen dira». Oraingoan estiloa aldatzeko gogo zuen Arretxek, eta aldatu egin du.

Batetik, nobela Euskal Herrian girotu du, besteak ez bezala; Bilboko San Frantzisko auzoan. «Nire gustuko beltzasuna agertzeko lekuri aproposena da, dudarik gabe, San Frantzisko inguru hori. Azken batean, Afrika txiki bat da, eta nobela ere halaxe izendatzen da». Bestetik, ondorengo liburuetan ere azalduko den pertsonaia bat sortu du: Toure. «Nobela beltzeko ia idazle guztiek dute pertsonaia bat sail bat sortzen duena. Jendeak esaten zidan horrelako bat sortu behar nuela neuk ere. Horretan saiatu naiz».


Pertsonaia sortzekotan, «zer-bait desberdina, originala» sortu

behar zuen; ez zuen ertzain edo ertzain ohi ikertzaile irudikatzen, eta etorkin afrikar bati eman zion «sasi-detektibe» protagonista izateko ahalmena. «Ez da detektibe. Bizirik irautearen alde edozer egin behar da. Toureri igarilearena egitea bururatzen zaio, beste afrikar askok egiten duen moduan. Horrela hasten da nobela». Pixkanaka gauza «bereziagoak» suertatuko zaizkio protagonistari, eta apurka detektibe bihurtuz joango da. «Nobela honetan ez dut bilatu aurrekoetako gordintasuna; gauza arinagoak egiten eta umorea lantzen saiatu naiz. Nobela hau ondo ulertzeko umore klabeak irakurri behar da, nahiz eta egoerak nahiko tragikoa izan askotan». Toureren bizimodua ez da bereziki erraza, baina aurrera egiten badaki, «bere afrikartasunari esker», idazleak argitu duenez. «Afrikan dezent ibilia naiz, eta han ikusi dut zela-indarrarekin egiten dioten aurre bizitzari, nahiz eta pobrezian bizi, eta zelako ahalmena duten bizitzaz gozatzeko ere».

Pertsonaia bera da ardatza

Liburuak «ez dauka trama potentetik», egilearen hitzetan, pertsonaia bera da liburu ardatz nagusia. «Berari gertatzen zaizkionak kontatzen dira, eta gero, bere inguruan daude trama paralelo txiki asko: andre zuri aberats misteriotu batek kontratatzen du, prostituta nigeriar adin txikiko bat desagertzen da, putetxe misteriotu bat badago tartean... trafikatzailerak...».

Kontu gehientsuenak errealtatetik ateratzen ditu Arretxek. Besteak beste, San Frantzisko auzoko etxebizitza batean igaro dituelako aldi batzuk nobela idazten duen bitartean. «Ezusteko handia hartu du. Denok buruan dugun auzo marjinala ikusteaz gain,



Jon Arretxe, 19 kamera liburuaren aurkezpenean, atzo. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

egunero auzo hobe baten alde lan egiten duen jende mordo bat dago. Halakoetan balkoira irtetea nahiko izaten da errealtateaz jabetzeko, eta aukera hori izan dut nik».

Izenburuan aipatzen diren kameraren antzeko funtzioa zuen Arretxeren etxebizitzako balkoi hark. San Frantziskon 19 kamera ezarri zituzten garai batean, eta gai polemikoa izan zela oroitzen du Arretxek berak. «Batzuentzat



San Frantzisko Afrika txiki bat da, eta hala izendatzen da nobela ere»

JON ARRETXE
Idazlea

modu oso ona izango zen delinkuentzia eta halako istorioak kontrolatzeko. Beste batzuentzat norberaren askatasunaren murriztea ekarriko zuen. 19 kamera izan ziren eta pentsatu nuen nobelarentzat nahiko izenburu iradokitzailea zela». Ondorioz, narratzailea bikoitza da liburuan. «Toure bera da narratzaile nagusia, eta lehen pertsona kontatzen du istorioa, eta bigarren narratzailea kamera horietako batentzat dagoen pertsona da,

eta hirugarren pertsona kontatzen du. Kamera horrek ikusten dituen gauzak dira normalean gure begiek egunez ikusten ez dituztenak. Kamera horren atzean norbait dago. Segun eta zer ikusten den edo zer gertatzen den, egingo du ezikusia edo pasako du abisua».

Bi ahots ditu nobelak, eta «bi muturreko errealtate» islatzen ditu Arretxek *19 kamera*-ren bidez. Batetik, San Frantzisko auzoaren marjinaltasuna. «Pisu paterak, droga kontuak, prostituzio dekadentea, trafikatzailerak...». Bestetik, operaren mundua eta auzo aberatsetako giroa. «Operaren mundua nahiko ondo ezagutzen dut, aspalditik nabilelako opera kantatzen Bilboko OLBE koruarekin. Horretaz baliatu naiz beste giro hori ere San Frantziskokoarekin kontrajartzeko».

Euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean plazaratu du liburu Arretxek. Azalaren diseinua egin duen pertsona berak egin du itzulpena: Cristina Fernandezek. «Beti nahi izan dut neure liburua beste hizkuntzatan ere irakur daitezen. Hasieran neu saiatzen nintzen nire liburua gaztelaratzen, baina konturatzen nintzen itzulpen txarrak zirela. Cristinaren itzulpenak jatorrizko bertsioa hobetzen duela esango nuke, lotsa handirik gabe».

Aitor Aranari egindako elkarrizketa luzea argitaratu du Hiriak

Cyril Taffin de Tilques irakaslearen galderei erantzun die Aitor Arana: bizitza eta obra elkarlanean liburuan

Juan Luis Zabala Donostia

Aitor Arana idazleari egindako elkarrizketa luzea plazaratu du Cyril Taffin de Tilques Akitanian jaioetako irakasleak, *Aitor Arana: bizitza eta obra elkarlanean* liburuan (Hiria). Luis Haranburu Altuna Hiriak argitaletzeko editoreak ere parte hartu du liburuaren prozesuan, elkarrizketa horretarako interesgarri iruditzen zitzaizkion gaien zerrenda bat osatuz. Ondoren, gai horietako bakoitzaren inguruko galderak idatzi zituen Taffin de Tilquesek, eta horiei banan-banan erantzun die, azkenik, Aranari.

Horretaz gain, Haranburu Altunak idatzitako hitzaurrea eta Aitor Aranaren hainbat adiskidek —Maite Urkia, Eukene Herrera, Mari Eli Ituarte, Lander Etxebarria, Wim Jansen, Michael Larkin eta Aitor Arrutik— libururako idatzitako testuak ere aurkituko ditu irakurleak; baita Aitor Aranaren bibliografia oso bat —itzulpenen, sarien eta abarren berri ere ematen duena— eta aurkibide zehaztua ere.

Arana eta Arretxe gustuko

Parisen euskara irakasle da Cyril Taffin de Tilques; eta euskarazko literaturaren jarraitzaile porrokatua. Aitor Arana eta Jon Arretxe ditu bereziki gustuko euskal idazleen artean, eta haien lanak oso ondo ezagutzen ditu. *Zubiak* aldizkariak literaturari eta euskarari zegokion atalaz arduratzen hasi zen 2004an, eta zeregin horren ondorioz Aitor Aranarekin harremanetan jarri zen hurrengo urtean. Harrezkero gutxienez urtean behin biltzen dira biak, eta duela hiruzpalau urte bururatuta zitzaien orain liburu gisa gauzatu den egitasmoa. Ezeen okerrik ez dela, ondorengo egunetan iritsiko da liburu dendetara.

Aranaren bi liburu frantsesera itzulita da Taffin de Tilques: *Urtegi misteriotua* eta *Irunberriko sorginak*; Hiriak argitaratu zituen itzulpen horiek ere. Aranaren obran bi gairen agerpenak piztu du batez ere Taffin de Tilquesen arreta, hark liburuaren sarreran dioenez: «heriotzak eta sexu-tabuen urraketak».